

Kalitate politika

Bere kalitate-politikan, **BATZ Trokelgintzak** bere jardueraren oinarri diren gidalerroak (ikuspegia, misioa eta balioak) definitzen ditu, eta horiek betetzeko eta aldizka berrikusteko behar diren bitartekoak eskaintzeko konpromisoa dauka, bai eta hura ulertu eta zabaltzeko ere, dagozkion alderdi guztiak barne hartuta.

IKUSPEGIA

BATZ Trokelgintza erreferentzia izango da bere bezeroen arrakastaren eraikuntzan, berrikuntzaren eta enpresarekin konprometitutako pertsonen bitartez.

MISIOA

BATZ Trokelgintzaren jardueraren helburua da BATZ Group eta gure bezeroen arrakastari laguntzea pieza konplexuagoetara (materiala edota forma) bideratutako trokelak diseinatuz eta eraikiz, ingeniartzako eta bezeroaren inbertsioa optimizatzeko proposamen integral batekin. Horretarako, **BATZ Trokelgintzak** proiektu itxaropentsu bat du, bezeroari zuzendua eta BATZ Group-en identitatean eta balioetan oinarritua, eta modu arduratsu eta zorrotzean lan egiten duen pertsona talde batek partekatzen duena.

BALIOAK

BATZ Trokelgintzako jarduera guztiak honako hauetara bideratuta egiten dira: lorpenera, pertsonen garapenera, Berrikuntzara, Positibotasunera, Konpromiso eta koherentziara, pentsaera globalera, bezero-orientaziora eta talde-lanera.

Horretarako, honako Helburu Nagusiak ezarri dira:

- **PREMIUM HORNITZAILEAREN IRUDIA, GURE BEZEROEN GOGOBETETZEAREN BIDEZ.**
- **BEZEROEN ESKAKIZUNAK ETA APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA ARAUDIA BETETZEA.**
- **PERTSONA KOLEKTIBOAREN GOGOBETETZEA ETA INPLIKAZIOA SUSTATZEA.**
- **KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMAREN ERAGINKORTASUNA ETENGABE HOBETZEKO LAN EGITEN DUGU BETI.**
- **BERRIKUNTZA.**
- **ERRENTAGARRITASUNA**



Juan Antonio Peña

Managing Director BATZ Stamping Dies Division

Azaroak 2016